



Zortzi antzezlanek osatzen dute egitaraua, sei euskaraz eta bi gazteleraz. Sarrerak 12 euroan jarriko dira salgai leihatilan eta ziklo osorako abonua 72 euroan eskuratu ahal izango da urtarrilaren 10a bitartean

Antzerkia oro har eta euskaraz egindakoa bereziki bultzatzen jarraitzea du helburu Beasaingo eta Ordiziako Udalen arteko elkarlanari esker antolatu den “Antzerki Garaia” egitarauak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Antzoki Sarearen lankidetzarekin antzerkia hedatu eta ikusleak erakartzeko denboraldi honetarako egitarau erakargarria antolatu dute bi udaletako kultura sailek.

Jakina denez, Antzerki Garaia programazioak 1995eko lehen hiruhilekoan eman zituen lehenengo urratsak; beraz, aurtengoa Goierriko antzerki-denboralditxoaren hogeita bederatzigarren ekitaldia da.

Ordiziako Barrena jauregian egindako aurkezpenean, bi udaletako alkateak Adur Ezenarro eta Leire Artola, izan dira edizio berri honen xehetasunak azaltzen. Lankidetza honen helburuak aurreko ekitaldietako berberak izaten jarraitzen dute: batetik, antzerki errepresentaziotara joateko ohitura sustatzea; eta bestetik, publiko berria erakartzea, gazteak batik bat. Lan horri ekiteko ezinbestekoa gertatu da borondateak batzea eta ahaleginak koordinatzea.

Antzerki taldeak eta obrak aukeratzeko garaian kontutan hartutako irizpideak kalitatea, muntaia, hizkuntza, konpainiaren eskarmentua eta obren arrakasta izan dira.

Sarrerak eta abonua

Aurtengo edizioari dagokionez 8 antzezlanek osatzen dute egitaraua. Horietatik bi izango dira soilik gaztelaniaz. Sarrerak 12 euroan izango dira salgai emanaldi bakoitzeko eta denboraldi osorako abonua salneurria 72 eurokoa izango da. Hau erosteko epea urtarrilaren 10a arte egongo da zabalik.

Abonuarekin, egitarauko emanaldi guztietara sartzeko aukera izango da Ordizian edo Beasainen izan. Edozein aldaketari buruzko informazioa jasoko dute, baita urtean zehar beste obra batzuen programazioari buruzkoa. Gainera, antzezlan guztietarako udalerri bakoitzeko antzokian esleitutako eserlekua mantenduko da.

Salmenta lekuak, Ordizian Herri Antzokiko leihatila eta Barrena jauregia eta Beasainen Usurbe antzokia izango dira. 10 sarrera baino gehiago eskuratu nahi dituzten kultura talde, ikastetxe eta gisakoek prezio berezia izango dute, 10 euro, eta dagokion udaleko kultura sailean eskuratu beharko dituzte.

Usurben lehiatila digital berria

Usurbe antzokiak bi aukera berri jarri ditu martxan sarrerak noiznahi eskuratu ahal izateko. Batetik www.usurbe.eus ataria, noiznahi eta nonahi sarrerak lortzeko. Bestalde, antzokiaren sarreran laster erabilgarri izango da Leihatila Digitala; edonork edonoiz sarrerak erosi ahal izateko zerbitzu berria izango da.

Programazioa

Beasaingo Usurbe antzokian zabalduko da esan bezala 2023ko “Antzerki garaia”ren egitaraua. Emanaldi guztiak 20:30ean hasiko dira.

Lehen emanaldian, **urtarrilaren 13an**, Txalo produkzioak konpainiaren eskutik “Sagastitarrak” obra izango da ikusgai.

Urtarrilaren 20an berriz, “La casa de papel” telesailaren arrakastaren ondotik, Itziar Ituño eta Ramon Agirre etorriko dira Ordiziara, “Hobe ixilik” antzezlanarekin.

Otsailaren 17an “Ez naiz inoiz Dublinen izan” lanarekin etorriko dira Usurbera Aitziber Garmendia goierritarra eta beste zenbait aktore, Tentazioa konpainiaren eskutik. Hurrengo astean berriz, Ados Teatroak konpainiak “Muchos amigos negros” antzeztuko du Herri Antzokian.

Martxoko lanak honakoak izango dira: **17an** Ordizian Hika Teatroak “Toto” aurkeztuko du eta **24an** Beasainen “Cabezas de cartel” Perigallo teatroak.

Apirilean eta aurtengo antzerki garaiaren zikloa itxiz, **14an** Beasainen “Yerma” lana izango da “La dramática errante”k aurkeztuta eta **21an** Vaiven produkzioak-en urteurrenean, “Familia Sarekada” lana ekarriko dute Ordiziara.

Antzerki garaiaren [pdf esku-egitaraua \(15.55 MB\)](#) Beasain eta Ordiziako etxeetan banatuko da eta bi antzokietan ere eskuratu daiteke.

